

Euskal AEko industria-prezioak % 0,5 igo ziren 2023ko urtarrilean aurreko hilaren aldean


2022ko urtarrilarekin alderatuta % 9,8koa izan da industria-prezioen igoera

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak % 0,5 igo ziren 2023ko urtarrilean aurreko hilaren aldean. Urtarrileko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 9,8koa izan da.

Azterketa xeheago batek agerian uzten du, 2023ko urtarrilean, igoerarik handienak izan dituzten sektoreak honako hauek izan direla: *Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa* (% 6,8), *Ura* (% 6,4) eta *Erauzketa-industriak eta Zurgintza, paper eta arte grafikoaren industria* (% 5,1).

Aitzitik, hileen arteko prezioetan jaitsierak izan dituzten sektoreak *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 7,7) eta *Industria kimikoa* (% 0,9) izan dira.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraituz, *Ekipo-ondasunen* prezioen aldakuntza % 1,9koa izan da 2022ko abenduaren aldean. *Bitarteko ondasunek* eta *Kontsumo-ondasunek* % 1,5eko igoera izan dute; azken horien kasuan, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* % 1,9ko igoera izan dute, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak % 1,4 jaitsi baitira. *Energiaren* prezioak, azkenik, % 1,8 jaitsi dira aurreko hilaren aldean.

Urte arteko datuei dagokienez (2023ko urtarrila, 2022ko urtarrilaren aldean), prezio-hazkunderik handienak ondoko adarretan izan dira: *Zurgintza, paper eta arte grafikoaren industria* (% 23,5), *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (% 15,9), *Industria kimikoa* (% 15,6) eta *Erauzketa-industriak* (% 13,0). *Garraio-materialaren fabrikazioa* da urte arteko jaitsiera izan duen sektore bakarra, % 0,3.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Urtarrila 2023

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	131,0	0,5	9,8
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	123,9	5,1	13,0
Manufaktura-industria	129,8	2,1	10,4
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	129,5	2,0	14,2
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	116,6	5,0	12,0
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	150,1	5,1	23,5
Kokeak eta petrolio finitzen	155,4	5,0	15,9
Industria kimikoa	152,6	-0,9	15,6
Botiken fabrikazioa	127,3	3,8	12,0
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	112,2	1,8	8,7
Metalurgia eta produktu metalikoak	139,3	0,8	12,0
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	122,3	6,8	4,0
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	115,5	2,0	3,8
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	114,0	4,0	5,8
Garraioko materialen fabrikazioa	107,6	0,2	-0,3
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	116,2	1,5	4,1
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	138,5	-7,7	6,8
Ura	130,5	6,4	10,4
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	127,0	1,5	13,0
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	111,4	-1,4	3,1
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	129,6	1,9	14,5
Ekipo-ondasunak	115,0	1,9	2,5
Bitarteko ondasunak	133,6	1,5	12,6
Energia	150,0	-1,8	11,8

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Otsailaren 23a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da xede ekonomikoaren arabera ondasun-talde handi guztientzat. *Kontsumo-ondasunen* prezioak % 13,0 igo dira, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* % 14,5eko eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* % 3,1eko igoerengatik. *Bitarteko ondasunen* prezioak % 12,6 igo dira eta *Energiarenak* % 11,8. Azkenik, *Ekipo-ondasunek* % 2,5eko urte arteko igoera izan dute prezioetan.

INFORMAZIO OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % 84,06ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62